

Irakaslearentzat gutuna



www.fundaciondiabetes.org

Lankide agurgarri hori,

Hezibide onaren arauak agintzen duten modura, nire burua aurkeztuko dizuet lehenik eta behin: Iñaki Lorente naiz, ikastetxe kontzertatu bateko haur eta lehen hezkuntzako eskola-orientatzailea.

Bi arrazoi nagusik bultzatu naute hezkuntza-proposamen hau garatzera:

- Batetik, nik neuk diabetesa izateak
- Bestetik, nire lankide-tutoreei diabetesa duten ikasleak izateak eta egoera horri aurre egiteko eta ikasleari laguntzeko trebakuntzarik eta baliabiderik ez izateak eragiten dien larritasunak.

Beraz, lan honen bidez bi helburu bete nahi izan ditut (niri milaka izatea gustatuko litzaidakeen arren).

- Diabetesari dagokionez benetan garrantzitsua zer den eta zer ez bereizteko zenbait pista eskaintzea.
- Zure ikasleei beren ikaskideari zer gertatzen zaion ulertaraztea eta, horri esker, zenbait uste oker ekiditea; nire esperientziaren arabera, uste horietako askok diabetesa duten ikasleak baztertzea eragiten baitute.

Ikusi ahal izan duzun modura, asmo handiak dira horiek.

Hala ere, jakin badakit mugak ere asko direla:

Zeharkako curriculum lantzeko denbora behar izaten dugu beti, litekeena da ikasgelan beste gaixotasunen bat duen ikasle gehiago izatea, etab.

Hori dela eta, baliabide hau sortzerakoan kontuan izan ditut irakasle bakoitzak izan ditzakeen beharrak (ikasgelako egoera, ikasle-kopurua, lortu nahi dituen helburuak, ikasleen kultura-maila, etab.). Dena dela, zure programa garatzerakoan lagungarri izan daitezkeen zenbait jarduera eskaintzen dizkizut lan honetan. Hala ere, kontuan izan nire proposamenak hainbat atal dituela.

Proposamen honen baitan eguneroko jardunean beharrezko duzun informazioa aurkituko duzulakoan nago; egoera bakoitzaren aurrean nola jokatu argituko dizun informazioa eta zure ikasleei (baita zuri ere) haur horren bizitza, gainditu behar izaten dituen oztopoak eta abar ezagutzen lagunduko dizuen.

Bestelako zalantzarik izanez gero, jar zaitez nirekin harremanetan.

Ondo izan

Iñaki Lorente
Psikologo kolegiatua: N-0284